



Zuzenbidearen Teorien sorta bat

Bilduma honetan, **Eleriako** ale ezberdinetan argitaratu izan diren Zuzenbidearen Teoriaren klasikoak batu ditugu. Hautaketa pertsonala izan da, noski, eta guztiz arbitrarioa bestalde. Zuzenbidearen korrante nagusi guztiak ez daude ordezkaturik. Nabarmena da teoria naturalaren falta, baina, bestalde, Hart-en testua ongi kokatzen da positibismoaren eta naturalismoaren arteko tirabira horretan. Dworkin autore sinkretikotzat jo dezakegu ikuspuntu horretatik, eta bere erantzun bakarraren tesia eta eskubideen tesia ez dabilta Zuzenbide Naturaletik urrun. Dworkinen eskutik, justiziaren teoriarik muturra sartzea lortzen dugu. Errealismo juridikoa ere horixe dago, Llewellyn-en eskutik ordezkaturik. Positibismo juridikoaren klasiko bat dugu Kelsen –bilduma honetarako propio ekarrita, nahiz eta aurreko **Eleria** aldizkarietan argitaratua ez izan–, eta bere testua ongi aukeratuta dagoela uste dut. Positibismo modernoaren ordezkari garrantzitsuenak eta interesgarrienak, MacCormick, ere ekarri dugu. Zuzenbidearen soziologiaren ikuspegia ez dago bereziki sartuta, baina Lawrence Friedman izan daiteke Ameriketako Estatu Batuetako ius-soziologo nagusia, eta bere lan nagusiko testuak sentsibilitate soziologikoa erakusten du.

Ezin dugu Zuzenbidea definitu; hori zaila da benetan. Klaseetan hainbat aldiz ibiltzen gara Zuzenbideko ikasleei hiztegi moduko definizioa eman nahian, eta beti aurkitzen dugu hutsuneren bat. Hasteko, Zuzenbidean hitz berberaz adierazten ditugu diskurtsoa eta aztergaia: Zuzenbidea arauak dira, Zuzenbidea doktrina da, Zuzenbidea ideologia bat da, edo diskurtso teorikoa. Gero, Zuzenbidea Estatuak dira, edo Estatuarena, eta garbi dago Estatuak Zuzenbide hutsa dela, baina fenomeno juridikoak ez dira Estatuarekin agortzen, eta, gainera, Estatu barruan badaude juridiko diren adierazpenak, nahiz Estatuak Zuzenbide ez izan.

Zuzenbide-ikasketen edozein egitarauri begiratu gero, gauza bat nabaritzen da: badirela Zuzenbidea osatzen duten edo Zuzenbidea diren gai nagusi-nagusi batzuk (Zuzenbide Zibila, Merkataritzakoa, Penala, Administratiboa, Prozedurala, Lan Zuzenbidea, Finantza Zuzenbidea). Badira, ondoren, Zuzenbidearen muinean kokatu gabe gero eta nagusitasun handiagoa hartu duten diziplinak, hala nola Konstituzio Zuzenbidea edo Nazioarteko Zuzenbidea, batez ere pribatua, baina baita ere publikoa, eta honekin zerikusia duen baina horrengandik askatu eta bere izaera propioa hartu duen Europar Batasuneko Zuzenbidea, gaur egun Estatu-kideetako Zuzenbide osoa eragiten eta eraldatzen duena. Zuzenbidearen atal nagusi hauek arbitrarioki bereizten ditugu. Batzuetan hobe da Zuzenbide pribatuaz eta publikoaz mintzatzea, eta gero ikusten da arazo juridiko askotarako muga hori bera komentzionala dela, artifizia. Gizartea bera konplexutzen doan heinean, mugak desagertu egiten dira. Familia edo Pertsonen Zuzenbidea ulertzeko, diziplina horiek guztiak konbinatu behar dira. Jabetza ulertzeko ere berdina. Badira, halaber, Zuzenbide izan gabe ere Zuzenbideari buruz diharduten beste gai batzuk, hala nola historia (Zuzenbidearena), teoria politikoa, ekonomia, filosofia, hizkuntzalaritza, semiotika, soziologia, antropologia. Bestalde, ezin dira natur zientziak baztertu, genetika, ekologia, meteorologia, geografia, botanika, etab. Leku berezia hartuko lukete Zuzenbideari buruzko diziplinen zerrenda honetan bai Zuzenbidearen teoriak eta baita Zuzenbide konparatuak ere. Hutsune nabarmenak daude

ikasketa planetan ez direlako gizarte zientziak horiek sartzen. Askotan, espero da Zuzenbidearen teoria batek hutsune horiek bete eta konpondu behar dituela, baina, hori eginez, agian gehiegitxo eskatzen zaio Zuzenbidearen teoria edo filosofiari. Eta, bestalde, egia da Zuzenbideari edo fenomeno juridikoei buruz ezer interesgarririk esan ahal izateko, ezer ulertzeko, diziplinartekotasuna beharrezkoa dugula. Jo dezagun hegaztien gripearen kasura, eta horren inguruan EB mailan hartu diren neurrietara. Horiek ulertzeko, beharrezkoa zaigu biologia, epidemiologia, ekonomia, meteorologia, ornitologia, medikuntza, soziologia eta psikologia soziala, nekazaritza zuzenbide europarra eta soziologia politikoa konbinatzea. Hartu, bestela, zelula amen gaia, edo zigiluen bildumen iruzurra.

Jende askoren ustez, batez ere praktika juridikoan diharduten abokatu eta epaileen ustez, garrantzitsuak Zuzenbide diren gaiak dira; ez, ordea, hainbat Zuzenbideri buruzkoak direnak. Tamalez, Zuzenbide karrerako ikasleek ikuspegi hau bereganatu dute, akulturazio gogor baten ondoren. Hemen azaltzen diren testuak Zuzenbideari buruzko diskurtsoak dira; ez dituzte Zuzenbidearen arauak deskribatzen edo aztertzen. Ez da testu hauen bitartez Zuzenbidea ikasten, baina bai Zuzenbideaz. Gure diskurtso hauek Zuzenbidearen ertzetan kokatzen dira, adarretan, eta guztiz sinisturik gaude ikuspegi hauek behar-beharrezkoak direla fenomeno juridikoak ulertzeko. Posible da teknikoki Zuzenbidea jakitea, Zuzenbideko arauak esaten dutena ezagutzea, Zuzenbidea bera ulertu edo ezagutu gabe. Espero dugu, beraz, aukeratutako testuok Zuzenbidea bera eta fenomeno juridikoen aniztasuna hobeto ulertzeko balio izatea. Gure xedea hori izan da.

Testuok, autore klasiko eta garaikideen liburu ezagunenetakoko atalak dira gehienbat, nahiz eta batzuk aldizkarietan argitaratu izan diren. Testu hauek bilduma batean jasotzeko ideia Itziar Alkortaarena izan da, eta, beraz, liburu honek argia ikusten badu beragatik da, eta José Ángel Ormazabalaren laguntzagatik.

Esker bereziak eman nahi dizkiot Koro Garmendiari, egin duen itzulpen lan bikainagatik. Itzuli beharreko testuak ez dira samurrak, baina berak ulergarri egin ditu euskara jantzi bezain zuzen batean. Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiot Ignacio Lacasta-ri ere, berak egin baitzuen Ihering eta Savignyren testuen hautaketa eta aurkezpena.

Joxerramon BENGOETXEA